

POESIA

Bihotz triste bat zintzo

LAUGARRENAK LAU

Gabriel Kortá
Autoedizioa, 2010
90 orrialde, 9,50 euro

Ainara MAIA

Inork ez zigun esan bizitzea erraza zenik, baina pena merezi du. Hori esan dit funtsean Gabriel Kortá poetak.

Mundua hobetzeko ahaleginetan bihotza samurtu egin dit poeta sufrituak bere bizipenekin. Bizitza xamurragoa egiten saiatzen naiz egunero, eta irribarre egin diot poeta urdin horri. Lau zatitan irakurri ditut poetaren sentimenduak, eta bihotz txiki zintzo horretako zenbait pertsonari zuzendu dizkio bere hitzak. Bihotzak triste dirau, baina bere testigantza eta sentipen zintzoa adierazi nahi izan digu.

Lehenbizi, isilean esan dit maite duela Hondarribiko uraren zurrumurrua, eta nik bihotzez malenkoniatsu oroitu dut norbaitek noizbait lapurtu zidala lore eder bat bihotzetik bi ur artean, Hendaia eta Hondarribia artean. Eta gero nolako mina alferrik! Isilpean daramat nik ere geroztik itxaropena bihotzean txistuka, eta irribarre bortxatu bat ahoan adioka. Beharbada poetaren nahigabeek tristatu naute, eta zenbait olerkirekin negar egin dut, baina bere nahigabeak neureak dira, nireak bereak, baita munduarenak ere, eta munduaren nahigabe guztiak poetarenak. Suizidatzea bizitzen segitzea bezain erabaki duina dela uste dut, baina jo-



ango dira zaharrak eta berriak etorri, eta tristurarekin nahiz pozurarekin plitiplasta bizituko gara.

Bigarrenik, bihotzetik kanpora eta zorroitik paperera poesiaren hegalez astindu dit kontzientzia. Hitzez biluztu nau hondo jo arte. Okaranen gisa kolpatu naute, eta txorien txistuaz goxatu zauriak.

Hirugarrenik, harri hautsiak erakutsi dizkit, hitzen ikaratik gelditutako esentzia, eta poetoi mintzo zaigu Gabriel. Poema amaigabe bat eskaini dit kontsolamendu gisa; izan ere, maitasunak ez du hasierarik ez bukaerarik. Maitasunak haize urdinaren pozaz betetzen gaitu, eta gero hustu egiten gara; eta horrela etenik gabe betetzen eta husten gara. Maitaleok

ezezagutzen dugu bizitza, maitasuna soilik bizi dugulako, eta orduan, oroitu naiz irailan aurkitu nuela behin nire maitale urdinarengan abuztuak ukatu zidana. Poetak oroitarazi dit badaudela maitatokiak edonon. Eskerrik asko, Gabriel, hitzeko maitasunaren goxoarengatik, ferekengatik eta muxuengatik. Zenbat udaberri esnatuko ote dira aurtengo bihotzetan?

Uda irailan sartu zait aurtun, nire bihotzera behintzat, leiho honetatik. Bakarik irakurri dut poema laburren multzo hau, eta bihotza aingurarik gabe, galduko ote naiz gau ilunaren hondora? Espero dut haizea alde izatea, eta orduan bihotz bakarti honek txistu egingo du Oiartzunera. Poetaren bihotz bakartiaren babestoki eroetxea dela esan dit zoro, poetaren negu luzeko itxaropenaren txalupa noiz edo noiz infernuetarantz bideratu baitzen, baina poetaren udaberri labur zorionekoak jakiten du ere paradisurantz joaten. Neguko elurrean atsedean harturik, hitz hautsi kontzientziadun urdin horiek atera zaizkio Gabrieli, eta euria isilik ariaren kristal honetan hiltzen zait niri.

Eta poema bat bestearen atzetik, laugarren eta azken zatira eroen gisa iritsi gara; azkenik maitasuna: bizitza gogorra, baina ederra dela esan dit poeta kontzientziadunak. Uda irailan, azkenean sortuko baitira bikote berriak udazkenean, gero ekainean berriro handia izateko enaron zoriona. Ni ere ohartu naiz hipersentibera eta bakartia naizela, ezkerrean dudalako bihotza. Ez dakit zer den poesia, baina poesia hau da: norbere hondarrak uztea nonbaiten, nola edo hala.



Mikel IBARGUREN

Itsasertzetik

Uste dut ez dudala liburu bakar bat ere, non ez dudan itsasoa aipatzen», zioen duela gutxi Marie Darrieusseq idazleak; «itsasoari so liburuak idazten nituen buruan». Bere haurtzarora zuen akorduan, itsasoak beregan duen eragina azpimarratu nahirik.

Neuk ere aitortu beharra daukat gero eta eragin handiagoa duela itsasoak niregan, haren presentzia amaigabeak betetzen nau, betierekoa eta aldakorra baita. Bare eta oldarkor. Gure imaginarioa aberasten duten itsasturiz, azkenportuz eta kantuz bete da. Literatura bera ere itsasoz bete dagoela esango nuke. Edota alderantziz, nahi bada. Itsasoa, besteak beste, oroimena baita, horregatik idatzi zuen Gerardo Markuletak «lehorrekooi erraz zaigu ahazten zenbat marinela hil den (...) itsasoa beti besterena gertatzen zaigu, inorena itsasoaren mina...».

Jaizkibel atzetik datorren zeru ubelak erauntsia agintzen du. Itsasoan ardiak ikus daitezke, goiz da eta irail honetan hondartzak bere buruaren jabe egin dira berriro. Momentu honetan maite dut gehien itsasoa. Ez dakit azken arnasa itsasoari begira emango nukeen, baina Orioko Bardoaren kantua nahigabe etortzen da burura. Itsas labarrera hurbildu ahala Guillevic-en poema harekin gogoratu naiz: «Zure aitzinean ozeanoa duzularik/zeure barne-labarrera hurbiltzen zara».

Hemen da berdatea, *brouillarta* bertako arrantzaleentzat, antxetak hegaldi kaotikoak egiten hasi dira eta «Aparretan» poeman nola, hala ikusten dut Karmele Igartua poeta zendu berria «olatuena kapritxora, ito arte bizi ahaleginetan», kresala eta euria nahasten diren momentuan. Han urrunago itsasoak ostertzarekin bat egiten duen lekuan beti dago gordea amets bat, harago egin nahia, *Chambre d'Amour* bat. Sentimenak uharak legez etortzen dira, izan ere, Baudelairek zioen bezala, «persona askeak beti maitatuko du itsasoa», lehorrekook erbestetik bezala begiratzen badiogu ere.

KALERATU BERRIAK



EL DESPERTAR DE LA CONCIENCIA POLÍTICA

CIELO NEGRO, MAR NEGRO
Izzet Celasin
Lengua de trapo, 2010
423 páginas. 19,50 euros

“Cielo negro, mar negro” transcurre en el malestar político que sacudió Turquía entre 1977 y 1981, don-

de los jóvenes estudiantes formarán parte activa de la convulsión política y social que impera en su país. El golpe de Estado cambiará la vida de todos ellos: es el despertar del posicionamiento político y, al mismo tiempo, del amor y sus convulsiones. Baris, el protagonista y narrador de la historia, acude a su primera manifestación del Primero de Mayo con otros compañeros de clase. De pronto estallará el caos. Mientras Baris intenta esquivar las balas, se encontrará con Zuhál, quien a partir de ese instante marcará la vida del protagonista, ya que no sólo será un modelo ideológico a seguir, sino también su gran amor. Tras el incidente, Baris tomará conciencia de la injusticia social y radicalizará sus ideas. No obstante, tanto él como Zuhál mantendrán el rechazo a la respuesta armada y su confianza en la lucha política. Pero esta postura es irremediablemente revisada cuando ambos son arrestados y torturados por la policía... Activista de izquierdas en Turquía, Izzet Celasin (Estambul, Turquía, 1958) fue encarcelado después del golpe militar de 1980, y ocho años después se exilió en Noruega. “Cielo negro, mar negro” es su primera novela y resultó ganadora del premio Gyldendal a la mejor novela política.



MUCHO MÁS QUE UNA BIOGRAFÍA

CHEEVER: UNA VIDA
Blake Bailey
Duomo ediciones, 2010
885 páginas. 42 euros

Su estilo y su prosa convirtieron a John Cheever (Quincy, Massachusetts, 1912-Ossining, 1982) en uno

de los mejores narradores del siglo XX. En su vida no hubo grandes peripecias ni fue testigo de importantes acontecimientos históricos, sin embargo, su turbulenta existencia dio para mucho. En “Cheever: una vida”, Blake Bailey desnuda al «Chéjov norteamericano» y airea sus miserias y disfraces más ocultos: las agonías de un hombre que amaba pero no podía soportar a los suyos (en especial, a su idolatrado hermano y, al parecer, primer amante); las poses de patricio falso y de nudista en festejos ajenos; la compulsión trepadora del adolescente provinciano y sin estudios a la conquista de Nueva York, las miserias del esposo volátil y del padre feroz; las culpas del bisexual rampante y del alcohólico de mediodía; el resentimiento y la envidia hacia sus colegas... La sustanciosa biografía de Bailey se une a la de Scott Donaldson, que no encontró traducción en castellano y tampoco el apoyo de la familia Cheever. Bailey, en cambio, ha podido hablar sin problemas con todos sus amigos, colegas y amantes de ambos sexos, y ha tenido acceso a toda la documentación del autor, cartas y documentos, e incluso a las páginas de su imprescindible diario. Esta obra ganó el National Book Critics Circle Award y fue finalista del Pulitzer.